

1.8. Erantzutegiaren ezaugarriak

1.8.1. Erantzutegiaren egitura

Erantzunak inkesta-lekuen arabera zerrendatuak dira, eta inkesta-lekuak berak, herrialdeka. Beti modu berean.

Herrialdeen ordena, baita haien barneko inkesta-lekuena ere, mendebaldetik ekialdera doan segida bati jarraitzen zaizkio. Horrela, lehenik Bizkaiko herriak agertzen dira, eta haietan, lehenbizikorik, *Getxo*, *Leioa*, *Zollo*... Azkenik Zuberoako inkesta-lekuak aurkitzen dira ekialdean urrunenik daudenak agertzen direlarik bukaeran: *Ürrüstoi*, *Barkoxe*, *Eskiula*.

1.8.2. Erantzun motak

Bi erantzun mota aurki daitezke erantzutegian: **zuzeneko erantzunak** lehenik, eta **erantzun proposatuak** bestetik. Azken hauek, berriemaileak ez ditu berak eman lehen aldian, baina proposatu izan zaizkiolarik onartu ditu, eta herrikotzat jo. Erantzuna agertzen da berriemaileak berak eman duen forman.

Bigarren mota horretako erantzunak letra etzanetan eta aurrean izarñoa dutela agertzen dira erantzutegietan. Adibidez, 58080 galderan, Lekeition, bi erantzun jaso dira: [úle] eta [*βízāī]. Lehena zuzeneko erantzuna izan da, eta bigarrena, aldiz, erantzun proposatua.

1.8.3. Erantzunen forma

Erantzunak ortografia fonetikoan agertzen dira (ikus taula fonetiko XXXI. orrialdean) eta ahalaz hizka emanak dira; esapide berezietan ez bada, ez da esaldirik agertzen erantzunen zerrendetan.

Erantzunak beren osoan, jaso bezala, utzi dira aldaketarik egin gabe. Bildu den adizkia osoki ez bazaio bilatzen zenari egokitzen, baina haren ezaugarriren bat gordetzen badu, onartu egin da, forma markatutzat joz. Horrelakoetan forma markatua zela adierazteko (*mark.*) erantsi da parentesien artean erantzunaren gibelean. Adibidez, 58100 galderan, Oiartzun herrian [múpoak] (*mark.*) erantzuna ere agertzen da, erantzun hau bere aldaera mugatuan bildu delako.

Gerta liteke ere erantzun bat ikertzaileak zalantzazkotzat jo izana izatea; halakoetan erantzunaren ondoren "(?)" ikurra agertuko da (galdera-ikurra parentesi barruan). Adb. 58170 galderan 'niña del ojo / prunelle / pupil of the eye' galdetzean, Zeanuri herriko [βeY'βáru] erantzunari "(?)" ikurra ezarri zaio.

Erantzun gisa jaso dira azentuz kanpo zerbait aldaketa zuten forma guztiak. Adibidez, berriemaileak bi erantzun eman dituelarik, forma batean sabaikari bat sartuz eta bestean ez, bi erantzunak bildu dira.

Kontuan har bedi, forma batek, markatua izanik edo ez, testuinguruaren arabera itxura desberdinak izan ditzakeela. Adibidez, lexema bateko hastapeneko leherkari ahostuna frikari bihurtu daiteke bokal baten ondotik, edo hastapeneko herskari ahostuna ahoskabe bihurtu daiteke herskari edo frikari ahoskabe baten ondoren ([búru – βúru], adibidez 58010 galderari dagokion mapan ikus daitekeenez). Ohar honek azentu kontuentzat ere balio izan dezake; izan ere, erantzutegian agertzen den erantzuna testuinguru batean emana izan da eta testuinguru horrek eragin izan dezake azentuan.

Bestalde, erantzunaren aldaera bat baino gehiago bildu izan denean, bildu diren guztiak ezarri dira erantzutegian, azentu desberdintasuna salbu. Horrela, irakurleak 59110 galderan (2137. mapan), adibidez, Mugerren erantzunaren bi aldaera elkarren ondoan kausituko ditu: [silko] eta [silkho].